

Lokarri akordioaren eta kontsultaren aldeko herritarren Sarearen aldizkaria  
Revista on-line de la Red ciudadana por el acuerdo y la consulta Lokarri

# H@ritu 34

Hacia la **irreversibilidad**  
Iraganetik ikasiz eta **etorkizunari begira**

Entrevista a Anneke Osse  
Mandato y función del Grupo Internacional de Contacto

# H@ritu 34

## Sumario Aurkibidea

---

<b>Editorial</b> Irreversibilidad, proceso de paz y diálogo	2
<b>En primera persona</b> Anneke Osse	4
<b>Kanpaina</b> Bake-prozesu itzulezin baterako baldintzak	8
<b>Gogoetan</b> Grupo Internacional de Contacto	13
<b>Ekimenak</b> Bizizikasi, bizitza hobetzeko pedagogia	14

[www.lokarri.org](http://www.lokarri.org)  
[bakeprozesua.org](http://bakeprozesua.org)  
[procesodepaz.org](http://procesodepaz.org)

  
**Lokarri**

Zuzendariak: Maria Lizardi eta Manu Vilabrille

Erredakzioa: Lokarriko komunikazio taldea

Maketazio eta diseinua: Lokarriko diseinu taldea. Ilustrazioak: Srinavasa Ramanujan.

H@ritu no se responsabiliza de las opiniones emitidas por sus colaboradores.

Erakunde laguntzailea / Entidad colaboradora



# Irreversibilidad, proceso de paz y diálogo

Son muchas las informaciones que estos días se están vertiendo sobre la posibilidad de que haya un pronunciamiento de ETA antes de las Navidades. Lokarri no tiene datos de que vaya a producirse. Lo que es evidente es que el objetivo a corto plazo pasa por asentar las condiciones para un proceso de paz irreversible. En este sentido, Lokarri desea que el final de violencia sea una realidad cuanto antes, empezando por un alto el fuego de ETA permanente, unilateral y verificable, como reclama la Declaración de Bruselas y el Acuerdo de Gernika.

Una decisión de ETA en este sentido facilitaría enormemente la consecución de otra de las grandes condiciones para un proceso de paz irreversible. Lokarri se ha posicionado desde el primer momento en contra de la Ley de Partidos y de la ilegalización de Batasuna. Ahora bien, un pronunciamiento claro y nítido de rechazo a la violencia por parte de Ezker Abertzalea tendría efectos positivos: despejaría todas las dudas sobre su compromiso con la no violencia y dificultaría que el Gobierno buscara cualquier pretexto para impedir su vuelta a la legalidad. Un pronunciamiento de estas características, sumado a un nuevo comunicado de ETA que ofrezca más garantías de una voluntad de abandono definitivo de la violencia, crearía una situación en la que sería posible activar la presión social para conseguir mover la postura negativa del Gobierno Central de contribuir a un nuevo proceso de paz.

Una situación de final de la violencia de ETA y legalización de Ezker Abertzalea puede abrir el camino hacia el diálogo político. El objetivo de las conversaciones es abordar muchas diferencias que hasta ahora no

se han podido resolver sobre temas como la identidad, el desarrollo todos los proyectos políticos o la memoria. Recientemente, se ha podido escuchar a representantes políticos que la mesa de partidos es un modelo que se intentó en el proceso de 2006 y que no funcionó. No es así. Nunca hasta ahora se ha intentado alcanzar acuerdos mediante una mesa de partidos.

En 2006 se establecieron unas conversaciones secretas, en las que participaron sólo algunos partidos políticos, sin información a la ciudadanía y, menos aún, espacios de participación social. El modelo de 2006, por tanto, no se basó en una mesa de partidos. Como se explica en la publicación que recientemente ha editado Lokarri, un proceso de diálogo requiere de unas buenas condiciones para desarrollarse, tiene que constituirse oficialmente y exige de la participación ciudadana. Lo ocurrido en 2006 fue un sucedáneo de una mesa de partidos.

Por ello, Lokarri valora muy positivamente la creación del Grupo Internacional de Contacto presentado por Brian Currin. Es cierto que los protagonistas del diálogo son los partidos políticos y la ciudadanía vasca, es cierto que el diálogo debe tener un reflejo en las instituciones, pero también es cierto que la implicación internacional en la promoción del diálogo es una importante contribución para facilitararlo. El final de la violencia de ETA y la legalización de Ezker Abertzalea son pasos decisivos pero sólo representan el inicio de un camino mucho más amplio que tendrá que recorrer la sociedad vasca hacia una convivencia inclusiva.

# Anneke Osse

## Activista de Derechos Humanos

Concebir una estrategia eficaz de investigación y acción con miras a mejorar el respeto a los derechos humanos por parte de la policía. Es el propósito por el que trabaja Anneke Osse, miembro del Programa “Policía y Derechos Humanos” de Amnistía Internacional y autora del libro “Entender la labor policial”.

**H@ritu:** afirma en su libro que el Estado dice que sus agentes deben cumplir con los DDHH. Cuando hay violaciones, ¿es consecuencia lógica que el Estado sea el último responsable de la violencia?

**Anneke Osse:** sí, para el Derecho Internacional el Estado es el sujeto. El Estado es un concepto abstracto que se implementa de personas trabajando para el Estado. Como consecuencia, según el Derecho Internacional, si un agente vulnera Derechos Humanos, el Estado es responsable. El problema está en cómo poner esto en práctica. La comunidad internacional denuncia a los Estados por las vulneraciones, como por ejemplo en el caso del Estado de Israel, donde la ONU ha denunciado vulneraciones de DDHH por parte de Israel, o casos como Sudán, etc... pero por otro lado, si un agente de policía comete una vulneración de DDHH, también es responsable personalmente. Aún así, muchas veces no es sólo el agente de policía el que comete la vulneración de DDHH, sino que las órdenes que reciben pueden suponer vulne-

raciones. Y esto nos retrotrae de nuevo al Estado. Es todo un mecanismo.

**H@ritu:** afirma que la sociedad ha delegado en los funcionarios de las fuerzas de seguridad poderes únicos como el uso de la fuerza. ¿Eso significa que la ciudadanía tiene algún grado de implicación cuando se producen faltas de ejercicio profesional por parte de la policía?

**Anneke Osse:** no, y nunca debería ser así. Esta afirmación tiene que ver con el contrato social, pero no me refiero a un contrato literal entre la gente y el Estado. En las democracias hay un sentimiento de que la gente acuerda que el Estado tiene el poder de mantener el orden y de que todo funcione bien. En realidad la policía sólo tiene dos fuentes de poder: una es la fuerza bruta, para obligar a la gente a hacer lo que quieran que haga, y la otra la legitimidad, que la gente esté de acuerdo en que la policía disponga de ese poder. Y si la policía sólo hace lo que hace en base a esa fuerza bruta, por ejemplo en dictaduras, entonces lógicamente habrá

carencia de legitimidad. En cambio, cuando la policía tiene legitimidad, entonces la gente, el pueblo, normalmente está de acuerdo con que se utilice la violencia en aquellos casos que así lo requieren porque no hay otra salida.

**H@ritu:** el Derecho Internacional exige la investigación de los casos en los que la acción policial haya tenido como consecuencia la muerte o lesiones graves. ¿Existen factores que la obstaculicen?

**Anneke Osse:** sí, porque en muchos países el Estado y los agentes de policía están incómodos por tener vulneraciones propias de DDHH. Lo que suelen decir es: “lo vamos a investigar nosotros mismos”, lo cual puede hacerse con efectividad, pero a menudo no es así”.

**H@ritu:** la presunción de inocencia, prevención de la tortura o el derecho a no declarar en contra de uno mismo son temas en torno a los que está trabajando para evitar vulneraciones de DDHH. ¿Qué



“La policía debe ser un agente activo en la reconciliación social”

Foto: Mentxu Zorita

**lectura hace de la realidad que se vive en el País Vasco con respecto a los casos de tortura y malos tratos que se producen?**

**Anneke Osse:** encuentro difícil responder, porque no conozco lo que pasa aquí. Sé que Amnistía Internacional sacó un informe sobre la policía en España en 2009 y 2007, y en el primero se dice claramente que hay casos de tortura y de malos tratos, aunque no es sistemáticamente. Pero hay una clara carencia por parte de las autoridades de cara a tomar medidas para garantizar que no se repitan. Esto es un informe sobre España en general. No sé qué particularidades hay en el País Vasco, pero no veo razones para que no sea diferente aquí.

**H@ritu:** aquí se practica el régimen de incomunicación, un puerta que puede dar paso a que haya tortura o malos tratos...

**Anneke Osse:** ésa es la razón por la que la comunidad internacional se opone a la detención bajo incomunicación, porque facilita las condiciones para que se produzcan. El Derecho Internacional lo prohíbe claramente.

**H@ritu:** ¿Cómo evitar que la policía vea a grupos armados o violentos como enemigos que hay que eliminar en vez de como ciudadanos que están cometiendo un delito?

**Anneke Osse:** creo que, en parte, la policía suele reflejar la opinión o actitud general del Estado. Probablemente conoceréis el dicho de que la policía es el brazo fuerte del Estado, su herramienta, y por supuesto si las autoridades políticas o administrativas toman esas actitudes hacia esos grupos, lógicamente la policía también. Por tanto, el cambio se tiene que producir en el Estado. Si cambias esto desde arriba, se reflejará en la policía. Aún así, considero que puede haber casos en los que sea la propia policía la que tenga esta actitud negativa, por lo que el tema está en qué tipo de policía quiere ser la policía: ¿una policía basada en la fuerza o en la legitimidad? En general, la policía suele ser más efectiva cuando está cerca de la gente, del pueblo, porque dispone de la información necesaria para realizar su trabajo. Pero sólo pueden tener acceso a esa información si la gente confía en ella. Y es lo mismo para el caso de los grupos violentos que planteaba en la pregunta. Es necesario incentivar espacios de comunicación.

**H@ritu:** la confianza pública depende, en gran medida, de que la policía sea



**transparente y de que rinda cuentas. ¿Qué características debe tener esa rendición de cuentas para que se pueda llevar a cabo?**

**Anneke Osse:** la rendición de cuentas es una expresión difícil. A veces es más fácil usar su correspondiente vocablo en inglés, *accountability*. En castellano es difícil de traducir. Trata sobre responsabilidad, lealtad, transparencia... Consiste en que la policía debe querer rendir cuentas. La policía debería poder ser escrutinizada y, a su vez, debería querer ser escrutinizada. La rendición de cuentas tiene que empezar desde abajo, los individuos deben querer rendir cuentas a sus jefes. Es lo mismo en cualquier otro trabajo, al final del día tienes que decirle a tu jefe lo que has hecho y lo que no, y si has hecho mal el trabajo tu supervisor te lo tiene que decir. Por tanto, debe de haber un rendimiento de cuentas interno, pero también externo. Se tiene que proceder a este segundo, en parte, dentro de las instituciones, por ejemplo dentro del Ministerio del Interior, o en el caso de la Guardia Civil dentro del

Ministerio de Defensa, y también dentro de Fomento, de la Fiscalía... ya que son instituciones estatales. La rendición de cuentas también tiene que venir de la gente. Yo, como ciudadana, tendría que tener la posibilidad de acercarme a la policía y decir: "Oye, ¿por qué estáis haciendo eso?". Los periodistas también deberíais poder hacerlo, y es cometido de la policía responder de manera transparente. Y también los académicos universitarios y ONGs deberían hacerlo. Me refiero a las ONGs porque pueden canalizar las preocupaciones de la sociedad con respecto a la policía, y así ayudar a que la policía marque las prioridades sobre lo que le inquieta a la gente. Además, debería existir una institución independiente que se encargara del rendimiento de cuentas. Ésto es terreno resbaladizo, muchos países encuentran difícil hacerlo, aunque en algunos ya lo han establecido, como por ejemplo, en Irlanda del Norte. A menudo, es ése mecanismo independiente donde la gente puede ir a plantear una queja, y estas quejas sobre mala conducta policial son inves-

tigadas. Pero lógicamente, la gente debería contar con la posibilidad de poner una queja directamente en la policía. Y si la gente tiene confianza en su policía, lo hará. Es una paradoja: si no confías en la policía, ¿por qué acudir a ella? Por el contrario, si hay algo con lo que no estás contento y tienes confianza en el cuerpo de seguridad, recurrirás a él. En muchos países están trabajando para que aumente la confianza pública en la policía. Como consecuencia, hay un aumento de quejas. Es un buen síntoma de que la gente se fía del sistema. Por supuesto, esto no es absoluto, porque hay que considerar también que el hecho de que haya una marea de quejas significa que hay otros temas que no se están elaborando bien.

**H@ritu:** ¿Considera proporcionada o abusiva la mera presencia policial, de forma masiva y con abundante material anti-disturbio, en un acto pacífico?

**Anneke Osse:** creo que puede ser intimidatorio. Pero eso no significa que neces-

# “Es necesario incentivar espacios de comunicación entre la policía y la ciudadanía para generar confianza”

riamente sea ilegal. De hecho, a veces puede ser correcto intimidar un poco para impedir que una manifestación escale y se convierta en violencia. Voy a poner un ejemplo: en Ámsterdam tenemos un notorio político de derechas. Algunas personas le consideran racista y fascista, pero una de cada seis le ha votado. Hace dos semanas un grupo político inglés dijo que se quería manifestar a favor de este señor, y el grupo resultó ser de extrema derecha, conocido en el Reino Unido por causar disturbios en manifestaciones. Inmediatamente un grupo de extrema izquierda dijo que haría todo lo posible para impedir la manifestación. Entonces, llegó un tercer grupo, los *hooligans* del Ajax, un equipo de fútbol local. Los tres grupos querían tener su manifestación en Ámsterdam, y estaba claro que iba a producirse violencia. El alcalde decidió permitir las manifestaciones, pero dejando bien claro que si se veía el más mínimo detalle ilegal las prohibiría, por lo que había muchísima policía armada, con vehículos blindados y todo el despliegue antidisturbios. De hecho, había más policías que manifestantes. En una situación como la que describo, es intimidatorio, se hace con esa intención.

En mi opinión, siendo parte de la opinión pública, fue correcto. Sólo estaban presentes, pero con todo el despliegue anti-disturbios, y quedaba claro que en caso de producirse el mínimo error por parte de los manifestantes la policía intervendría. Creo que esto es la disputa de la policía, es decir, es la única institución que tenemos en la sociedad a la que le permitimos usar la fuerza al servicio de la sociedad. Y está en manos de la comunidad, de los políticos, pero también de

la propia policía buscar un equilibrio a la hora de enfrentar estas situaciones.

**H@ritu: ¿Cree que la policía puede ser un agente activo a la hora de abordar la reconciliación social?**

**Anneke Osse:** sí, creo que la policía puede ser un agente activo en la reconciliación social y en la resolución de conflictos sociales. Pueden y deben. Pero deben actuar como policías, ejercer las labores que les corresponden, y no como trabajadores sociales. El valor añadido de tener a la policía es que puede usar sus poderes como policía, lo que en algunas situaciones puede ser muy bueno al tener un efecto preventivo o disuasorio.

**H@ritu: ha mencionado el tema de la colaboración entre la policía y las ONGs, ¿cómo pueden colaborar?**

**Anneke Osse:** en primer lugar, las ONGs nunca deberían de hacerse con el trabajo de la policía, y en algunos países está ocurriendo lo contrario. Las ONGs tienen su papel en la sociedad, y la policía, como organismo gubernamental, tiene el suyo. Ni la policía tiene que convertirse en una ONG ni las ONG en policía. Teniendo esto claro, pueden trabajar juntos. Entre otras labores de colaboración, las ONGs pueden dar seminarios de formación para la policía y proporcionarles peritajes. De todas formas, me parece que lo más importante es la capacidad canalizadora de las ONGs. Tienen acceso a las preocupaciones de la gente y pueden canalizarlas.

**H@ritu: con respecto a la formación de la policía, ¿en qué aspectos hay que poner mayor atención?**

**Anneke Osse:** en mi libro ofrezco una lista de aspectos importantes. En general, necesitan conocer la ley, habilidades especiales como lucha, tiro, etc. Lo que se suele ignorar bastante son las habilidades comunicativas. Si queremos contar con policías que se basen en la legitimidad se tienen que poder comunicar con la gente. Esta es una difícil labor, porque deben tomar contacto y tratar con personas de distinta procedencia, de diferentes estratos sociales, edades, con una amplia gama de problemas y conflictos realmente duros... Es cometido de la policía entender bien el significado de la ley, más que memorizarlo artículo por artículo. Por ejemplo las lecciones de tiro: en muchos países las lecciones de tiro consisten en aprender a dar en el blanco. Es necesario que en su formación, quienes van a ser policías aprendan también a evitar el uso de las armas. En muchos países vemos que los únicos medios que tiene la policía son armas de fuego, es la única herramienta que se les proporciona. El principio de proporcionalidad supone que tengas diferentes medios para elegir. En general, el periodo de formación suele ser muy corto, unos seis meses. A menudo, las personas que ingresan en el cuerpo no tienen ni la educación secundaria y se enfrentan a un trabajo que requiere mucha dificultad. Se debería exigir un nivel de estudios más alto y la formación más intensiva para poder apreciar la complejidad de su trabajo.

# Irag eta etorki



Bake-prozesu itzulezina

# ganetik ikasiz zunari begira

## Itzulezintasuna lortzeko baldintzak

Iragan larunbatean, azaroaren 13an, Lokarrik aurkeztu zuen Argitalpena aurkezten dizugu hemen. Agiri honek ez du xede galdutako itxaropena berreskuratzea, nahiz eta gogo duen horretan laguntzea. Agiriaren helburu bakarra da bakeranzko prozesua itzulezina izateko beharrezkoak diren baldintzei buruzko ikuspegi eraikitzailea eskaintzea eta euskal gizartearen beste frustrazio bat ekiditea.

Iraganeko porroten ikaskuntza irakasgai ezinbestekoa da urte hauetan guztietan sufrimendua pairatu duten pertsonei eta herritar guztiei huts ez egiteko.

### Aurreko bake-prozesuan egindako akatsak

2006ko bake-prozesu baten azterketak identifikatzen laguntzen du egin ziren akats zenbait identifikatzen laguntzen du. Akats horiek zirela eta, prozesuaren oinarriak ez ziren izan nahikoa egonkorak eta sendoak.

#### 1. Indarkeriara itzultzeko mehatxua

ETAk su-etena iragarri zuen, baina indarkeriara itzultzeko aukerak, aurrera egiteko eragingarri moduan jardutetik urrun, prozesua tirabira giro batera eraman zuen, ETAk, armetara itzultzeko boterea izanik bere esku, tutelaje betekizuna hartu baitzuen beregain. Inplikaturiko eragileen artean beharrezkoa zen konfiantza sortzeko orduan ere oztopo izan zen. Azkenik, sektore publiko guztiek aukera berdintasunean parte hartu ahal izatea eragozten zuen indarkeriarea itzultzeko mehatxuak.

#### 2. Elkarrizketarako oinarrizko printzipioen gabezia


Elkarrizketa prozesu batek beharrezkoak ditu printzipioak, prozedurak,

egutegia eta edukiak. 2006ko prozesuan elkarrizketaren oinarri metodologikoak ez ziren finkatuak izan aurretik. Ondorioz, lehen arazoak sortu zirenean, konponbide bat bilatzeko tresnak eta mekanismoak ez ziren egon eskuragarri. Elkarrizketa politikoari dagokionez, blokeaturik geratu zen akordio gabeziarengatik, eragile nagusiak ez ziren irtenbide bat topatzeko gai izan.

#### 3. Nahasketa metodologikoa

Bazirudien elkarrizketa mahaien arteko bereizketa adostuta zegoen oinarrizko edukietako bat zela. Planteamendu horren arabera, ETA eta Gobernu arduratuko ziren afera teknikoei (armak, indarkeriaren etetea, presoak) buruzko akordioak ixteaz. Bitartean, eduki politikoari buruzko elkarrizketa alderdien esparrura xedatuko zen.

Aurreko bake-prozesuan, elkarrizketa politikoak blokeatu zelarik sortu zen arazoa. Indarkeriaren itzulera ekiditeko premiaren aurrean, ETA eta Gobernuak gai politikoak hasi ziren lantzen beren elkarrizketetan eta beraz, gairiditutako eredu batera itzuli ziren.



## 4. Ezker Abertzalearen ilegalizazioa

Elkarrizketa prozesu orotan, funtsezkoa da alderdi politiko guztiek aukera berdintasunean parte hartu ahal izatea, mehatxurik eta inongo mugaketa motarik gabe. Azken bake-prozesuan Batasunak ez zituen izan bere esku premisa horiek, legez kanporatu baitzegoen. Errealitate hori muga bat izan zen publikoki bere proposamenak azaldu ahal izateko eta, gainera, baldintzatu egin zituen bere harremanak gainerako alderdi politikoeekin, ezin izan baizuten finkatu elkarrizketa publiko bat haiekin. Areago, elkarrizketan jarduteko ahalegina gauzatu zutenean, salaketa penaletan nahasita ikusi zituzten beren buruak. Horren adibide izan zen Batasunako ordezkariekin publikoki bildu izanagatik Ibarretxe Lehendakariaren eta PSEko buruen aurkako epaiketa.

## 5. Elkarrizketen isilpeko izaera

Elkarrizketen isilpeko izaera Batasunaren ilegalizazio egoeraren ondorio zuzena izan zen. Indar politiko horri jarritako debekua zela eta, elkarrizketa publizitaterik gabe garatzera behartua egon zen. Alderdien mahaia ez zen ofizialki eta publikoki osatu eta ez zituen partaide izan Legebiltzarrean ordezkari zuten alderdi politiko guztiak.

Gainera, elkarrizketak isilpean gauzatu zirenez, nahikoa erraza izan zen horiek haustea. Parte-hartzaileek gainerakoei leporatu zieten porrotaren erantzukizuna. Nork bere bertsioa eman zuen hausturaren arrazoiei buruz eta euskal gizarteak lekukotasun horiek eduki behar izan ditu oinarri gertatutakoaz ideia bat egiteko.

## 6. Herritarren partaidetzaren gabezia

Prozesuaren isilpeko izaerak herritarrek partaidetza zuzenerako gune bat ez edukitzea ekarri zuen. Euskal gizarteak ez zuen izan elkarrizketa-prozesuaren garapenari buruzko informazio publikorik eta, horrenbestez, ezin izan zuen garapena ebaluatu eta monotorizatu.

## 7. Prozesuaren aurkakoko sektoreen presioa

Euskal gizartearen gehiengoak eta espainiar gizartearen zati garrantzitsu batek beren sostengua eman zioten aurreko bake-prozesuari. Hala ere, beren indar eta presentzia txikiagoa izan zen beren errefusa agertu zuen herritargoaren sektoreekin alderatuta. Elkarrizketen isilpeko izaerak sektore horien zitalkeria areagotu baino ez zuen egin gai negoziatzeari buruzko elkarrizketak garatzen ari ziren mehatxuaren aurrean. Era berean, elkarrizketari buruzko informazio gabeziak elkarrizketaren edukien eta helburuen azalpen pedagogiko bat egitea galarazi zuen.

## Bake-prozesu itzulezin baterako baldintzak

Bake-prozesu batek inoiz ez dauka diseinu perfekturik. Beti agertzen dira arazoak, indarkeriazko eta sufrimenduzko hainbeste urteren eta desberdina onartzeko gaitasun ezaren ondorioz. Oinarriak sendoak izatea da garrantzitsua eta eragozpenak modu partekatatu eta eraikitzailean kudeatzen joatea.

Hain zuzen, 2006ko prozesuak erakusten du zein garrantzitsua den jartzea prozesuaren bideragarritasuna bermatzeko eta prozesuari izaera atzeraezina emateko beharrezkoak diren baldintzak. Zentzu honetan lagungarri diren eta orduan egin ziren akatsak ez errepikatzea ahalbidetzen duten hiru baldintza nagusi zehaztu daitezke: indarkeriaren amaiera, legalizazioa eta herritarren partaidetza.

## ETAren indarkeriaren amaiera

Oinarriko Giza Eskubideekiko begiruneagatik eta euskal gizarteak aho batez hala eskatzen duelako, ETAren indarkeriak bukatu egin behar du. Gainera, atzera itzulerik izango ez duen bake-prozesu baten oinarriak finkatzen lagunduko luke:

**Presioririk ez eta konfiantza.** Indarkeria amaitzeak elkarrizketaren gaineko

presioa deuseztatzen du eta guztiek indarkeriak dakarren mehatxurik gabe parte hartu ahal izatea ahalbidetzen du. Bake-prozesuaren eragileen artean beharrezkoa den konfiantza sortzen laguntzen du horrek guztiak.

**Prozesuen anabasa eragozte.** Indarkeriaren amaiera itzulerarik izango ez duen bide batean sartuta, jarduera armatura itzul ez dadin, ETAk ez dagokion protagonismoa bereganatzeko arriskua ekiditen da.

**Legalizazioa erraztea.** Kontuan harturik legezkoa izan nahi badu inongo zalantzarik gabe indarkeria gaitzestea eskatzen zaiola Ezker Abertzaleari –gai honi buruz intrepertazio gradu altua egon daiteke-, indarkeriaren amaierak planteamendu mota hau gainditzea ahalbidetzen du, izan ere, ez baita beharrezkoa salatzea existitzen ez den zerbait.

### Legalizazioa

Oinarrizko Askatasun Demokratikoekiko eta aniztasunarekiko errespetuagatik, Ezker Abertzaleak ordezkaturiko sektoreak badu bizitza politikoan legearen baitan eta berdintasunean jarduteko eskubidea. Gainera, Ezker Abertzalearen legalizazioa baldintza ezinbestekoa da atzerabiderik izango ez duen bake-prozesu baten euskarriak eraikitzeko:

**Partaidetza aukera berdintasunean.** Ezker Abertzalea euskal gizartearen partaide da eta, beraz, badu bake-prozesuan gainerako alderdi politikoek dituzten aukera berberekin parte hartzeko eskubidea. Bakarrik modu honetan aurkeztu ahal izango dizkio bere proposamenak gizarteari, inongo mugaketarik gabe, eta finkatu ahal izango ditu hartu-eman politiko normalizatuak gainerako alderdiekin.

**Elkarrizketa ofiziala, gardena eta eraginkorra.** Alderdien arteko elkarrizketa ofiziala izatea ahalbidetzen du Ezker Abertzalearen legalizazioak. Elkarrizketa mahai bat publikoki osatzen delarik, zailago da alderdietako batek elkarrizketak zokoratzea. Eta hala egiten badu, iritzi publikoak hari leporatuko dio elkarrizketaren haustura. Horrela, denek beren burua behartuta ikusten dute ahalegin bat egitera elkarrizketa abian mantentzeagatik. Azkenik, erakunde eta alderdi politiko guztien presentzia egoteak elkarrizketaren emaitza ordenamendu juridikora eramatea ahalbidetzen du.

**Oinarri metodologikoak.** Denen partaidetza badago aukera berdintasunean, posible da printzipioei, prozedurei, egutegiari eta edukiei buruzko lehendabiziko akordio eraginkor bat hitzartzea. Horrela, prozesuaren garapenean sor daitezkeen zailtasunak era partekatuan kudeatzeko baliabideak jartzen dira eskura.

### Herritarren partaidetza

Bake-prozesu baten hartzailleak herritarrek dira, osotasunean. Prozesuaren emaitzaren menpe dago neurri handi batean herritarren etorkizuna. Beste porrot batek gizartearen etsipen handiagoa eragin dezake. Elkarbizitza barneratzailea eraikitzeko aukera handiko etorkizuna zabaltzen du arrakasta batek. Horregatik, herritarren partaidetza baldintza ezinbestekoa da atzerabueltarik izango ez duen bake-prozesu bat garatzeko.

**Prozesuaren ebaluazioa.** Une zenbaitetan beharrezkoa den diskrezioa errespetatuz, elkarrizketak gardena izan behar du. Alderdi politikoek aurkeztutako proposamenak zuzenki ezagutzeko ahalmena izan behar dute herritarrek, bai eta elkarrizketen garapenaren informazio egokia jasotzekoa ere. Hori guztia, herritarrek eskura izan ditzaten egoera aztertu, prozesua ebaluatu eta ekarpenak egiteko osagaiak.

**Herritarrentzako pedagogia.** Prozesuaren garapenari buruzko informazio argi eta zintzoak elkarrizketaren xehetasunak eta lortuko diren balizko akordioak lasaitasunez azalduz joatea ahalbidetzen du. Transmisio honi esker, posible da beldurrak uxatzea eta lortuz joango diren akordioen esanahia, aukera eta ondorioak ulertzea.

**Herritarren protagonismoa.** Herritarren partaidetzarako guneak zabaltzea ere eskatzen du bake-prozesu ireki batek, pertsona guztiek beren ideiak eta iradokizunak helarazi ahal izateko elkarrizketa politikoari begira, abian jarri elkarbizitza barneratzailea taldean eraikitzeko ariketa. Aldi berean, elkarrizketaren emaitzak herritarren nahiaren menpe egon behar du.

Pie de foto

“Hay una gran oportunidad para un proceso de paz.  
Espero que pueda comenzar en 2011”

(Brian Currin)



# Mandato y función del Grupo Internacional de Contacto

Brian Currin, promotor de la Declaración de Bruselas, ha tratado de consultar con la mayoría de los actores políticos del País Vasco con el objetivo de definir un mandato para el Grupo Internacional de Contacto (GIC). Ha tenido éxito, manteniendo contactos constructivos con la mayoría de los actores. Como consecuencia de dichos contactos, se ha definido el siguiente mandato general para el GIC:

Agilizar, facilitar y posibilitar el logro de la normalización política en el País Vasco

Para el GIC la “normalización política” consistiría en un escenario político inclusivo y transparente basado en las vías exclusivamente democráticas y en ausencia total de violencia o amenaza de violencia de cualquier origen, donde se acuerde un marco jurídico político ampliamente compartido que garantice un escenario de estabilidad en el que todos los proyectos democráticos puedan ser tanto defendidos como materializados. Todo ello tendría su base en el principio de respeto a la voluntad democrática de la sociedad vasca, a la pluralidad política, a los principios democráticos y a los procedimientos y normas vigentes.

Los firmantes de la Declaración de Bruselas han dirigido de forma inequívoca la demanda de la comunidad internacional que representa dicha Declaración.

**Bruselako Adierazpenaren sinatzaileek eskatu bezala, ETAk aldebakarreko su-eten iraunkor eta egiaztagarria iragartzen duenean, HNTk bere lanari ekingo dio.**

Tal y como ha sido requerido por los firmantes de la Declaración de Bruselas, cuando ETA declare un alto el fuego unilateral, permanente y verificable, el GIC comenzará con su trabajo.

Según todo lo anterior, el mandato específico del GIC será el siguiente:

- Promover, facilitar y posibilitar la legalización de Ezker Abertzalea;
- Alentar medidas que generen confianza, tales como:
  - superar las medidas especiales que restringen su actividad política y
  - adaptar la política penitenciaria a la nueva situación política transformada;
- Animar y asistir a los partidos, en la medida que sea requerido, con la preparación y desarrollo de una agenda para el diálogo político;
- Alentar, facilitar y posibilitar, en la medida que sean requeridos por los partidos, el diálogo y la negociación multipartita, sin condiciones y sin un resultado predefinido, sujeta a los Principios Mitchell. El objetivo del diálogo y la negociación multipartita sería alcanzar un acuerdo inclusivo para superar el conflicto político;
- A petición de las partes, mediar en caso de bloqueo;
- Generar confianza en la sociedad respecto a que un proceso de paz exitoso es ciertamente posible.



*Rueda de prensa de presentación del mandato del GIC (Bilbao, 12-11-2010)*

# Bizizikasi, bizitza hobetzeko pedagogia



Arantzazuko Baketik-Gandiaga Topagunea

Arantzazuko Baketik bakearen zentroan lau urtez egindako lana laburbiltzen duen terminoa da Bizizikasi. Metodologia berritzaile bat du abiapuntu eta bere jarduerak eta proiektuak gidatzen dituen berrikuntza etikoaren motorra da. Labur azadulta, bizizikasi bizitza hobetzeko pedagogia bat da, eta jada ikasturte honetan Baketik-eko ikastaroen euskarri nagusia da.

Hasia den ikasturte honetarako eta datorren urteetarako Bake zentroaren berrikuntza eta ekarri nagusitzat eskainiko da Bizizikasi pedagogia. Bizizikasi norberaren bizitza, gizartea, bizikidetzeta eta hezkuntza hobetzeko pedagogia dela esan daiteke. Bi kontzeptu integraturen sinergiaren emaitza da: bizipena eta ikaskuntza. Geure bizipenaren kontzientziatik ikasi eta geure burua hobetu dezakegula esan nahi du.

Kontzienteki bizi dugun hori soilik ezagutu eta ikasi dezakegu benetan. Bizizikasi pedagogia geure errealitate pertsonalaren 8 bizipen zehatzetan oinarritzen da, eta hortik 8 ikaskuntza ateratzen ditu. Gaitasun didaktiko handiko zortzi bizipen dira, gizakiaren ezaugarri berezkoenen eta unibertsalenen parte direnak, eta gaitasun didaktiko handia dutenak, funtsezkoena irakasten digutelako. Ondoko hauek dira zortzi bizipen horiek: mugapena, esker ona, kontzientzia, giza duintasuna, elkarrizketa,

enpatia, pazientzia eta maitasuna. Bizizikasi pedagogiak bizipen horiez jabetzeko mailakako prozesu aktiboa proposatzen du, esperientzia horiek bizitzaren, bizikidetzaren eta hezkuntzaren inguruko ikaskuntza iraunkor bilakarazteko.

Horietako lau oinarritzko ikaskuntzak dira: giza izaeraren mugen, esker onaren zentzuaren, kontzientzia entzutearen eta giza duintasunaren esanahiaren ikaskuntzak. Beste hiru instrumentalak dira: elkarrizketaren plusaren, enpatiaren plusaren eta pazientiaren plusaren ikaskuntzak. Zortzigarrena eta azkena, maitasunaren funtsezko ikaskuntza da. Bizizikasi pedagogiaren lehentasunezko ezarpen-esparrua berrikuntza da, hain zuzen ere, berrikuntzaren etika baten oinarriak zehaztu eta ezartzeko egiten duen ekarpena. Autonomia pertsonala bultzatzea pedagogia honen baldintza den neurrian, bizizikastea edozein pertsona

osasuntsurentzat eskuragarria eta ulergarria da, eta egoera eta baldintza desberdinenetan eta aurkakoenetan baliozkoa da. Metodologia horren aplikazio eremu zenbait aztertu eta pedagogia hori garatzen eta aplikatzen duen 2010-11 ikastaroen programa joria prestatu du Arantzazuko Baketik zentroak (informazio gehiago [www.baketik.org](http://www.baketik.org) gunean).

### Ikastaroen eskaintza

Bizizikasi pedagogian barneratzeko urratsak egin nahi dituenak **“Gatazken lantze etikoa”** ikastaroa egin dezake. Benetakotasun etikoa eta pertsonala bilatzea bultzatzen du geure arazoei eta zailtasunei aurre egiteko moduan. Zentzua dugunetik heriotzeraino gatazkek ditugu bidelagun gizakiok. Gatazkei modu eraikitzailean aurre egiteko gai ez bagara, geure bizitza korapilatu egiten da. Ikastaro honen helburua geure gatazkek etikoki lantzen ikastea da, bai geure eguneroko harremanetan sortzen direnak, baita gizarte- eta politika-mailan sortzen direnak ere. Ikastaroak bi formatuko eskaintza dauka: asteburukoa (jada gauzatu zen) eta egun bakarrekoa (ekainaren 18an). Bizitzak arazo, zalantza, oztopo, frustrazio, beldur eta estutasun ugari erakusten dizkigu. Zailtasunean murgilduak gaudenean, geure buruari galdetzen diogu ea tresnarik ba ote dagoen zailtasun horien aurrean hobeto gidatzeko baliagarriak izan daitezkeenak edozein pertsonarentzat. **“Zeure buruarekin eta besteekin bizitzea. Oinarrizko lau ikaskuntza”** ikastaroa galdera horri erantzuten saiatuko da pertsona guztiok geure bizitzan antzeman ditzakegun ikaskuntza lau esperientzia eskainiz. Egundakar batean (ekainaren 18an, larunbatean) edo bi eguneko formatuan (martxoan, ostirala 18an eta larunbata 19an) gauzatu da ikastaroa.

Zeure buruarengandik ikasi nahi duzu? Hala bada, **hiru egunez, isiltasunean, bizizikasi pedagogian murgiltzeko** aukera duzu. Gutako bakoitza irakasle aparta izan daiteke norberaren buruarentzat. Geure zailtasunak, gatazkek, bizipenak, lorpenak, pozak edota porrotak eraldaraziko eta haziaraziko diguten ikasgai onenak dira. Ikastaro honen helburua geure eskarmentua aprobetxatzen ikastea da: bai bizitza pertsonalerako eta baita besteekin bizitzeko ere. Ikastaroaren metodologiak isiltasunezko tarte zabalak hartzen ditu nork bere buruari entzuteko, norberaren gozamenarako eta egonaldiari probetxu ateratzeko. Bizizikasi pedagogiarekin funtsezko tresna didaktikoa isiltasuna da. Ikastaroa hiru eguneko formatuan izango da: abenduan, 6, 7 eta 8an eta uztailen, 1, 2 eta 3an.

Elkartasun -eta boluntariora- esperientziak erabakigarriak dira geure buruarekin eta besteekin hobeto bizitzeko. Bizitza ez da erabatekoa altruismoaren esperientziarik gabe. Baina funtsezkoa da behar bezala lantzea hartzaileentzat eta geuretzat ere emankorragoa izan dadin. **“Boluntariora edo elkartasun-konpromisoa hobetzea. Enpatiarekin plusa lantzea bizizikasi pedagogiarekin”** deitutako ikastaroak geure elkartasunaren motibazioak eta itxaropenak aztertzeko laguntza eman diezaguke. Elkarrekin konpromisoak dituzten pertsonen eta baita euren bizitzako zati garrantzitsua besteekin laguntzeari eskaintzen diotenei ere zuzendua dago. Ikastaro hau maiatzaren 7an, larunbatean, izango da.

Sufrimendua bidelagun dugu, ekidinezina da. Hala izanik, geure baitan nola aritzen den ulertzea komeni da. Bizizikasi pedagogiak ez du sufrimendua ezabatzen, baina zailtasuna bizitza-bide eta -prozesu eraikitzaile bihurtzen laguntzen du. **“Sufrimendua ulertzea: aurre egiteko eta laguntzeko”** ikastaroaren helburua sufrimendua ulertzea da, geuk aurre egin behar izaten diogunean edo lagun hurkoak pairatzean lagundu ahal izateko. Ikastaroa martxoan egin daiteke egun bakarrean (larunbata 26) edo maiatzean bi egunez (ostirala 27 eta larunbata 28).

Bizizikasi pedagogiarekin metodologia sozioekonomian aplikatzeko proposamena egin du bake zentroak **“Berrikuntzarako etika: hastapena”** ikastaroaren bidez. Gaur egun eragingarria den edozein aldaketa jotzen da berrikuntzat. Eragingarritasun-agindu ausartegia da. Litekeena da «hipoteka zaborrak» horrelako berrikuntza baten ondorio izatea. Bizizikasi pedagogiarekin ustez, eragingarriagoa da eragingarria bakarrik izaten ez saiatzea. Berrikuntzak helburu prosoziala eta oinarri etikoa behar ditu. Ikastaro hau berrikuntzari eta bere konpromiso etikoa eta pertsonalari buruz zalantzak dituzten pertsonen dago zuzendua, edozein jardura-eremutakoak izanik ere, eta otsailaren 26ean, larunbatean, gauzatu da. **Hezitzaileentzat prestatuturiko ikastaroa ere pentsatu da. Izan proposamena eta Bizizikasi pedagogia hezkuntzan eta eskolan** nola jorratu erakutsi nahi zaie irakasleei. “Pertsona izaten hezteak lehentasuna duela uste duen hezitzailea nola hezten da? Nola hez naiteke ni neu pertsona izaten? Hemen jartzen dugu jokoan guztia”, Baketik-en hitzetan. Arrazoiz zoriotsu bizitzeak badu zerikusirik pertsona izateko jantzi horrek dakartzkigun mugak eta aukerak ahokatzearekin. Hori da kontua: nola hezi neure burua eta besteak pertsona izaten? Izan proposamena eta bizizikasi pedagogia Baketik-en iradokizunak dira honi ekiteko. Otsailen, ostirala 11n eta larunbata 12an, eskainiko da ikastaroa.

**Izan proposamena eta Bizizikasi pedagogia guraso eta hezitzaileen** beharretara egokitutako ikastaroa ere antolatu da. Seme-alaben heziketa arinagoa egin nahi da zenbait puntu kardinalen orientabidetan oinarrituz. Horretan lagundu nahi dute Izan proposamenak eta bizizikasi pedagogiak. Irakasle, familia eta gazteen artean ikaskuntza-prozesuak partekatzea pertsona izaten geure burua eta besteak hezteko Izan proposamenaren oinarrizko irizpidea da. Horregatik, ikastaroa gurasoentzat pentsatua dago bereziki, baina baita heziketan ardura duen edozein pertsona edota talderentzat ere. Egundakar formatua edukiko du ikastaroak eta data hauetan izango da: azaroaren 20an, abenduaren 18an, urtarrilaren 15ean eta otsailaren 19an. Izan proposamena eta bizizikasi pedagogia sarritan zineman oinarritzen dira hezkuntza-tresna eskuragarria, dibertigarria eta ahalmen didaktiko handikoa delako. Ildo horretatik, **bizitzarako eta bizikidetzarako hezkuntzan filmak erabiltzen** ikasteko ikastaroa aurreikusi da. Irakasleei zuzendua dago bereziki, baina baita gurasoei, asisialdi-, parrokia-, elkartearduradunei ere. Zerbaiten garrantzia adierazten asmatzen ez dugun horietan, fikzio sortzailearen lengoaiak erraz lagun diezaguke. Zinemak geure burua eta besteak hobeto hezten laguntzen digu. Ikastaroa otsailaren 4tik 5era bitartean gauzatu da.

# bakeprozesua.org

Bakearen eta bizikidetzaren aldeko euskal gizartean ahaleginaz hitz egiteko esparru bat



## Gernikako agiriaz

Txema Ramirez de la Piscina  
UPV-EHU irakaslea

2010eko irailaren 27an [bakeprozesua.org](http://bakeprozesua.org)-en argitaratua

## bakearen alde posteatuz

Gernikako agiria “historikoa” omen. Geroak esan beza. Edozein kasutan, joan den larunbatean hamarnaka gizarte eragile eta indar politikok “Bake bidean” izenburupean sinatutako dokumentuak badu mamirik. Aurrera begira ere, izan lezakeen potentzialtasuna benetan handia dela uste dut. “Ez dago ezer berririk” dioena gezurretan ari da.

### Arrazoiak

Zergatik da horren garrantzitsua? Lengoaia kriptikoa alde batera utzita, gauzak argi eta garbi eskatzen zaizkiolako bai ETARI (bere amaiera), baita Madrilgo Gobernuari ere (alderdien legearen deuseztapena). Ez hori bakarrik, biktimen eta presoengintza inguruan ere oso gogoeta zentzuzkoak egiten dira. Amnistiaren eskakizuna ere garbi agertzen da. ETARI eskatzen zaiona azkar beteko balitz, ezker abertzaleko sektore desberdinen artean abiatu den berradiskidetze prozesua izugarri azkartuko litzateke. Kosta egingo da, baina ez dute beste erremediorik. Gizarteak exijitu egiten die. Adiskidantza horrek ahalbidetuko luke aspalditik batzuk aldarrikatzen ari garen ezker abertzale berriaren sorrera: gorria bezain berdea, zibila bezain zabala.

Indar berri horrek hankaz gora jarriko luke egungo jokalekua. Mapa politikoaren beste hiru hankak –PSOE-PP-EAJ horren jakitun dira. Ez dute, jakina, adiskidetze hori erraztuko. Ez da beraien lana. Gainera, ongi asko dakite horrelako mugimenduak euren pribilegioak eta aginte-gunetxoak arriskuan jar litzakeela. Patxi Lopezek birtualtasunean eraikitako fikzioa hondoratzeaz egon liteke, baita segurtasunaren izenean muntatu diren hainbat negozio ilun ere.

Bereziki esanguratsua da EAJren paradoxa. EAEn bozka gehien lortu dituen alderdia da, baina gata falta zaio. Noraezean dabil: karismadun buruzagirik gabe, ekimen argirik gabe eta proiektu politiko ezagunik gabe. Arzalluz, Ibarretxe eta Egibar historia dira edo neutralizatuta daude. Gernikan tokirik ez. Forondako zelaietan ere, juxtu topatzen du bere burua. Hurrengo hauteskundeak ere irabaz litzake, baina ez du ilusiorik sortzen. Iñigo Urkullu ez da erreferentea, ezta bere alderdikide askorentzat ere. Zer gelditu da Ibarretxek 2005ean, Eusko Legebiltzarraren aginduz, Madrilgo Kongresuan duintasunez aurkeztu zuen plan soberanista hartatik? Zer

### Osagaiak

Jarrai dezadan galderak egiten: Zer behar da ezker abertzale berria sortzeko?, zer gehiengo sozial berriak artikulatzeko? Nire uste

apalean, lau osagai funtsezkoak dira: konfiantza, malgutasuna, komunikazio emozionala eta sare sozialak.

Konfiantza. Etsipena gainditu eta ilusioa berpiztu behar da. Erraz esaten da. Horrek oinarri sendoak behar ditu. Eragile desberdinen arteko konfiantza sustatzeko ETAREN inkognita lehenbailehen argitu behar da. Ezker abertzale berriaren sorrera ezin da eraiki indar armatu baten oniritziaren zain. Ezinezkoa da. Nork bere argudioak azaldu behar ditu, parekoenak baino sendoagoak direla demostratzen ahalegindu, beste inoren laguntzarik, inposiziorik edo beto eskubiderik gabe. Horretarako guztien arteko konplizitate, konfiantza eta errespetua behar dira; baita eskuzabal jokatu ere argazkiaren dirdirarekin obsesionatu gabe.

Malgutasunaz. Printzipioetan sendo oinarrituta baina berorien aplikazioan malgutasunez joka lezakeen indar politiko berria behar da, gehiengo sozial zabalak eraikitzeko. Horrek eskatzen du, prozesu honetan estatuaren aldetik egongo diren eraso antidemokratikoen aurrean, erreakzionatzeko beste estilo bat, iraganezko tik zaharrak gaindituko duen beste jardunbide askoz ere sortzaileagoa.

Komunikazio emozionalaz. Ezker abertzalea –zer esanik ez ETA bera maisua da kriptografiaren artean. Lerro artean irakurri behar da. Oso barrura begira egindako txosten eta adierazpenak egiten dira. Zilegi da, baina zaila. Horrek muga garbiak ditu: etxeok. Gaur egungo buruzagiek ez dituzte soilik ideia politikoak transmititzen. Horiekin batera, emozioak eta sentimenduak ere helarazten dituzte. Hitza bihotzaren giltza da.

Sare sozialez. Gaur egun estatuko 18-32 urte bitarteko gazteen %91,5 sare sozialen batera konektatuta dago. Horietako askok prentsa elektronikoa baino ez dute irakurtzen. Ez doaz kioskora kazetara erostera. Errealitate hori kontuan hartu behar da. Identitatearen indarra eta altermundializazioa uztartu behar dira teknologia berrienak erabiliz.

Lau osagaiok ideia bakar batean bildu daitezke: ezker abertzale berriaren trantsizioa obratzeko beste kultura politiko bat garatu behar da.

Nire zorionik beroenak Gernikako dokumentua sinatu duten guztiei. Bazen garaia.